

Txillardegi

Idazlea

# Metaziria, zut!

■ Heldu den igandean Aberri-Eguna ospatuko dugu abertzaleok. Eta imperalismo arrortzaren erasoaldi bete-betean ospatu beharko, aurten.

Mayor Oreja fazista lotsagalduren sasi-azalpen laido-garriek gure erraietan irekitako zauriei ezintasunaren odola darielarik, ezin ozenkiago aldarrikatuko dugu: «Gora Euskal Herri Askatua!».

Bertako autonomisten laguntzarekin, aspaldi honetan ezagutu ez genuen maila iritsi baitu Madrilko gobernuak gidatzen duen zafraketa anti-euskaldunak.

Sistema vasco-español kolaboratzaileak —Auria-Enea ardatz, noski— hona ekarri gaitu. Eta ez bestera. Sagar-rondoak sagarretara daraman bezalaxe.

Eta deskalabro honen erantzukizun historikoa ez da, oro har, gurea: kolpatuona, ostikopetuoia, baztertuona. Espainiar agintearekin eskuz esku tramankulu autonomiko hori ballatu, uxtiatu eta jetzi dutenena baizik. Hori garbi dago. Baina aurrerago jo behar da. Ausarki.

Edonork ikus dezakeenez, benetako *Frente Español* bat sortu da Hegoaldean. *Foro de Ermua*, *Círculos Miguel Angel Blanco*, *Victimas del Terrorismo*, *Cuadernos de Alzate*, *Mosquer-Buesa-Barreda* hiru mosketereen eskuadroiak, eta beste mila talde anti-abertzalek, ero eta nabarmenkiago erakusten dute.

Hor dugu *Frente Español* inter-regionala eta inter-klasista, frankismoarekiko malenkoniak jota, eta bere beso harmatuek sendotuta. Euskal Herriaren kontra harropuzturik. Espainiar ezkerria eta eskuina elkarturik, *gure bila* etorriak dira jadanik.

Eta gu, artean, non gaude? Badirudi Aberri-Eguna bezpera honetan galdera hori pausatzeko parada ona dugula.

Frente ultra-españolari guri begira dogoelarik (eta ez begira bakarrik!), badirudi diot nik apalki, aspaldian adierazitakoa errepikatuz— beste elkarketa simetriko bat antolatuta behar genukeela guk, beste *Frente* bat. *Frente Abertzalea* preseski. Jadanik lehertua den espainiar olatuari, al bait egokienik aurre egin ahal izateko. Atzeritar okupazioaren kontra aspaldian asmatu ziren FLN haien leguko bat. Ez dugu zertan baratzuri-sopa asmatu beharrik.

Eta *Frente* hori, jakina, ustelkeriak jana hondoratzen ari den ontzi *autonomikotik* at antolatuta behar litzateke. Eta *isilpean*: Mahai bat barruan, aski da. Eta sobera ere bai. Gasteizko *bistak* garbi utzi ditu gauzak, eta *estado de derecho* delakoa zer den ere bai (jadanik garbi ez zituztenentzat behintzat)...

Beste ohar bat: *Frente* horrek *Iparra* eta *Hegoa* besarkatu behar litzukeela sorreratik beretik. Sendagaila hoberik ez espainiarikerien aurka.

Hots, *Frente Abertzalearen* proiektuak berak oso fama txarra du gure artean.

Arzalluzek, batetik, ez du okasiorik bat ere galdu *euskal frentismoa* zikintzeko eta isekatzeko; sekula gainditu ez duen karlismo errejonalistaren minbiziak jota dagoen txapelgorri batengan batera harritzekoa ez dena.

Eta bestetik, eta euskal ezkerrearen aldetik, oraindik ere garaitua ez dugun sozial-imperialismo espainolistaren virusa hor dugulako (ikastolari ez, baina, *escuela pública*-ri bai, espainiar legearen menekoa izango bada ere; euskal inter-klasismoari ez, baina Anguita eta Aznar elkartuta ikustea, normala; ezker muturrekoa ez dena ezin izan daitete abertzalea; eta abar luze bat), *Frente Abertzalea* proposatzea, bekatu ezin larriago, eta eskomiku gorrien iturri gertatzen da.

Espainiar guztiak onartzen dute *Frente Española*, eta euskal separatismoaren kontrako borroka guztiakoa. Baina euskaldunen artean lau katu gara *Frente Abertzalearen* alde agertzeko ausardia dugunok. Gure artean inork ez du nahi horrelakorik... «Ez horixe. Hori falta genuke: Aberriaren alde elkartzea... Utikan!».

Are bitxiagoa: espantuka agintzen baizira Eli Gallastegiren alde, eta geure geletan zintzilikatzen baitugu Telesfororen argazkia.

Eta, barka. Neure adinean, eta azkenengo urteotako gertakariak ikusita, inoiz baino tinkoagoa aldarrikatu nahi dut hemen *Euskal Fronte Abertzalea* antolatuta behar genukeela. Gallastegik, Monzonek, Ho Chi Minhek, eta beste mila buruzagi abertzalek proposatu izan zutenaren bidetik.

Emergentzi egoeran gaude. Oto! Zabal ditzagun begiak! Gaur, siglen gainetik, eta *abertzale jokatzen* duten indar eta multzo abertzaleekiko errespetuan, kaikuakerien gainetik, eta alderdi politikoen ezintasuna gainditzeko, *Burujabetza* helburu soilaren inguruan behar dugu elkar-tu.

Arrasatear gudari ezagunak esan ohi duena beraren hitzez auzalduz, lastoa, egurra eta abarrak gure ikazkinek *metaziriaren inguruan plitzen dituzten bezala*, guk ere euskal metaziria jarri behar dugu tinko, zut, metaren ardatzean.

Eta gure metaziria hauxe da: *Burujabetza*, *Independenzia*. Adjetiborik gabea. Gaur gaurkoz *musikarik gabea* (gure bergararrak esango zukeen bezala).

Metaziriari, bai. Gerokoak... gero. Eta nork berea: noski. Baina gaur egun metaziria jarri behar dugula ahanzti gabe. Gaur ez da betegarriaren eguna, are gutxiago orbelarena.

Gaur: *Independenzia ala hiri!* ■



Josu Lartategi



## Artezale bilbotarrak

Dagoeneko denboratxo pasa da Guggenheim museoak atea zabaltu zituenetik eta oraindik ere jende-ilara ederrak sortzen dira, batik bat asteburuetan. Gaur zerbait esatera deliberatu naiz, bai museo erraldoi eta pretentzioso horretaz bai arte modernoaz eta berorren jarraitzaile bilbotarrez.

Arangotiko gazte batzuekin berbetan, azken aidi honetako bilbotar zintzoenekin egon naizela konturatu naiz. Zera aitortu didate, argiro, esan bezala: guri bost artea, guk ez ditugu gauza horiek ikusten. Gauzak! Gauzak dira, izan ere, arte modernotzat hartzen direnak, ez gehiago eta ez gutxiago. Batzuk, gainera, arruntak zeharo, beste asko interesgarriak, noski, eta enparauak adar-jotzetik hurbil dabiltzanak. Eta kontuz, gero!, ze ikusleak ere badu bere harro-puntutxo, eta inori ere ez zaio gustatzen adarra jo diotelako impresioarekin geratzea. Bai, geure esku dago liburua ixtea, konpaktoa amatatzea edo ezertxo ere esaten ez digun eta gainera tontolizat hartzen gaituen koadro edo eskulturaren bati kasu zipitzik ere ez egitea.

Dena dela, eta ustezko artezaleez ari naizela, zurtuta eta penatuta entzuten ditut anitzen aburruak. Museoaren egitura halakoa dela, kanpoaldea holakoa, Bilboko itxura eder eta berria hara-koek, komertzioen eta zerbitzu-hiriaren etorkizun oparoa honakoek, zenbat inbertisio erakarriko dituen batzuek, atzerrian ze hiri sonatua izango den bestetazuek... Arraioa! Eta museoaren barrukoak berba bat ere ez! Arteaz fitsek ere ez esate horrek argiro erakusten du bilbotarren mundu-ikuskeria. Artezaleatasuna ezin da inon ere egunik egunera piztu, are gutxiago tradizio eta eske-mental industrialak dituen hiri batean. Museo bat eraikitzeagatik ez dugu ezelango kultura piktorik edo eskultorik sortuko. Baina, jakina, hori ez da helburua, beste bat askoz ere simpleagoa baizik: zerbitzu hutsa eskaintzea, jolas-parkea edo zoologikoa bailitza. Aldeko argumen-tazio bera erabiliko lukete azken bi horietarako ere, hitzez hitz gainera, seguru nago.

## Kornera

Mikel Elorza

### Inguruabarrak

■ HBren egoitzako esploitazio ikertzeko bai Guardia Zibilak bai Ertzaintzak ageri duten grinari kasu eginda, delitua bera ikertzen baino gogotsuago dirudite Cesidek bildumatu duen informazioa helitzen. Txiste maltzurra irudi lezake, baina ez da. Almunia ere haserre dago aferagatik, baina ez delituaren larriagatik, informazioa bere sokakoa ez den egunkari baten bitartez jaso duelako baizik (galde diezakeie bere alderdikideen sustengu-afarrietara joaten direnei, eurak agintean zirela hasi baitzen entzuketan). Txistetik deus gutxi, beraz, azken batean delitua bera baino inguruabarrak direla-eta aztoratzen direlako. Erran nahi da inguruabarrak eta formak desberdin izatekoan, entzuketak eta segimendua zilegi izanzen zirela.

HBko zuzendaritza kartzelan, legez kanpoko segimendua (egoitza batekoa jakin dugu, zergatik pensatu behar da bakarria dela?) eta ez da ezer gertatzen. HBren aurka dena zilegi dela pentsatzeko arrazoiak behintzat ematen zaizkie HBkoek.

## L A P h I T Z A

